

TALDE LANEAN, HARROBIA IKASTOLAN

Bilboko Harrobia ikastolan irakasteko metodologia berrien bidez aritzen dira. Goi eta erdi mailako zikloak zein langile eta langabetuentzako ikastaroak emateaz gain, kirol irakaskuntzetarako eskola baimendua da.



Ikasle batzuk, Harrobia ikastolaren atarian eta parkean. HARROBIA IKASTOLA

Harrobia ikastolak goi mailako heziketa ziklo hauek ematen ditu: goizean, Marketin eta publizitatea, 3D animazioak, jokoak eta ingurune elkarreragileak, eta Kirol eta Gorputz ekintzen sustapena, eta arratsaldean, Kirol eta gorputz ekintzen sustapena. Eta erdi mailako heziketa ziklo hauek: goizean, Mikroinformatika sistemak eta sareak, eta arratsaldean, Natur ingurune gorputz eta kirol ekintzen gidaritza.

Halaber, langile eta langabetuentzako ikastaroetan eskaintza zabala du. «Gainera, Bilbo Zaharra, Zabala, San Frantzisko eta Miribilla auzoetan laneratzeko plan singularrean parte hartzen dugu, Bilboko udala, Lanbide eta auzoko beste eragile batzuekin batera», arduradunek azaldu dutenez.

Harrobia ikastola kirol irakaskuntzetarako eskola baimendua da, eta hainbat federazioekin batera ikastaroak eskaintzen ditu, hala nola, igeriketa-monitore, padel entrenatzailea eta abar.

Harrobia ikastolan orain dela urte batzuk hasi ziren irakasteko metodologi berriak aplikatzen. Horrela, ikasgaiak barik, erron-

kak planteatzen zaizkie ikasleei, talde lanean ebatzi ditzaten. «Ordutegiak malgutu dira, ikasgaiak ez dira irakasle baten jabegoa, askotan bi edo hiru irakasle egon daitezke aldi berean ikasleen zailtasunak argitzen; espazioak ez dira nire mahaia, nire aulkia, nire ordenagailua; eskola-aldaketa adierazten duen txirrinak ez du jotzen, ez du zentzurik eta».

Areto balioanitzak erabiltzen dituzte. «Horrek ahalbidetzen dio ikasleari orain hemen egotea, irakaslearen azalpenari adi; gero hor, taldekideekin bilera eginez; eta han bukatu, ordenagailuan proiektu bat diseinatu. Irakasleek bilerak gela barruan egiten dituzte ikasleak lanean diren bitartean. Ikasleei etengabeko jarraipena egiten zaie eta azterketa gutxi egiten dira».

Metodologia honen helburua da ikaslearen autonomia sustatzea, bere ikas-prozesuaren jabe izan dadin. «Langile autonomia, inizatibaduna, arduratsua, komunikatzeko dohainak dituen izan dadin, eta jendearen aurrean hitz egitea ez ezik, enpatia ere erakusten duena. Horrez gain, zuzentasunez hitz egin eta idazten jakin beharko du, eta komunikazioaren erregistroak bereizi».

Lan hori guztia talde lanean egiten ikasi behar dute eta, gu-

txienez, hiru hizkuntzatan. gainera, talde barruan lidergoa bereizten eta liderraren rola hartzen jakin behar dute. «Hori, baina, ez da nahikoa; etengabe ikasteko prestutasuna erakutsi behar dute, mundua etengabe aldatzen ari baita».

Bide batez, ikasleen interakzioa bilatzen da ingurunearekin, hots, enprekin, inguruko elkarteekin, beste ikas-zentro batzuekin... «Horrek eraman gaitu enpresideien lehiaketetan parte hartzera, beste erakunde batzuentzat monitoretza lanak egitera, bideo lehiaketetara aurkeztera, enpresek antolatzen dituzten hitzaldietara eta ekitaldietara joatera, azoketan parte hartzera eta bertan geure ikasleek ikastolaren irudia izatera, besteak beste».

BERDINTASUNA ETA EUSKALDUNTZEA

Ekintzailetasuna, inklusibitatea, genero berdintasuna, hizkuntz normalizazioa eta iraunkortasuna dira Harrobia ikastolan sustatzen diren beste balio batzuk.

2017-2018ko ikasturtean genero berdintasun plana martxan jarri da. Plan horren arabera, berdintasun efektiboa lortu nahi du Harrobia ikastolak bere ziklotan. Horrez gain, genero bazterkeria eta biolentzia kasuak antzemate-

ko protokoloak ezarri dira. «Familia gehienetan oraindik indarrean da sexuaren arabeko rola, hauda, oraindik existitzen dira familia batzuk emakumezkoenak direnak eta beste batzuk gizonezkoenak. Emaizta estatistikoek argi erakusten dute hori, eta hori lan-mundura trasladatu egiten da».

Bestalde, hizkuntz normalizazioa bultzatzeko ahaleginean, 2007tik aurrera Harrobia ikastolak Ulibarri programan parte hartzen ari da. Hizkuntz Normalizazioa «modu integralean» ulertzen du Harrobia ikastolak. Hori dela eta, lan-munduan ere eragile izan nahi du, ez bakarrik langile euskal hiztunak merkaturatuz; horrez gain, Lanbide eta Hobetuz ikastaroak euskaraz eskainiz, «2017-2018ko ikasturtean Lanbide ikastaroen %70 euskaraz eman dira», eta praktiketara doazen ikasleen jarduna euskaraz egitea ahalbidetuz, «ikasleen erdiak praktikak euskaraz egitea lortu

da Bilbo bezalako ingurune sozio-linguistiko batean».

Bikain eta Bai Euskarari ziurtagiriak ditu Harrobia ikastolak. «Lan-merkatuaren euskalduntzean eragile aktiboak izan nahi dugu. Gainera, Harrobiako ikasleek aukera dute HABEren C1 titulua ateratzeko ikastaroa egiteko, bai eta ingeleseko eskolak hartzeko ere.

Azkenik, ingurumena zaintzea eta iraunkortasuna helburu izanik, Harrobia ikastola Eskolako Agenda 21 egitasmoan parte hartzen ari da, eta 2017-2018ko ikasturtean Eskola Jasangarriaren egiaztagiria eskuratu du. «Hala, hizkuntza paisaia zaintzea ez ezik, hondakinen trataera, karbono aztertaren kalkulua, ikasleen partaidetza bezalako gaiak lantzen ari dira.



Informazio gehiago bildu nahi izanez gero, bisitatu webgune hau: www.harrobia.eus

q016_p01